

BEZEROEKIKO HARREMANAK:

Gure aplikazioa herritar ororen esku egon dadin, ezinbestekoa da aplikazioen distribuzio digitalaz arduratzen den plataforma nagusietan gure aplikazioa argitaratzea. Horretarako Plataforma hauen artean erabilienak Play Store eta App Store dira. Horrez gain, erabiltzaile bakoitza gustura sentitu dadin gure aplikazioa erabiliaz ezinbestekoa dugu aplikazio txukun, erakargarri, eskuragarri eta erabilterraza argitaratzea. Hori gauzatu ahal izateko, hainbat harreman eduki beharko ditugu. Harremanetan garrantzitsuena Play Store eta App Storeekin eduki behar duguna da, bi empresa horiek izango baitira aplikazioa erabiltzaileen eskura jarriko dutenak. Bi empresa horietaz gain, gure aplikazioa sortuko duten pertsonekin harremanetan jarri beharko dugu. Batetik, aplikazioa diseinatuko dutenekin kontaktuan jarri beharko dugu. Ondoren aplikazioaren diseinua oinarritzat hartuz aplikazioa egingo dutenak egongo dira eta bertan teknologian adituak diren pertsonak, programatzaileak etab aurkituko ditugu.

Ondoren, argi dago anuntzianteekin eta erosleekin modu ezberdin batean jardungo dugula. Batetik, anuntzianteekin modu zuzen batean harremandu beharko dugu dena erabakitzeke eta adosteko, ahalik eta hoberen geratu dadin proiektua. Bestalde, erosleekin ez dugu harreman zuzena edukiko seguruenik, baina momentu batean ere ez gara beraietaz ahaztuko, oso garrantzitsuak direlako. Horretarako ahalik eta modu egokienean jokatu beharko dugu beraiekin, zalantzak argituaz, proposamenak aztertuz etab.